

## IDEIA

Oteitzako ikasleak gara, erdi mailako mekanikako zikloa egiten ari garenak. Tailerrean soinuaren aurka kaskoak erabiltzen ditugu, segurtasun gisa. Piezari bizarrak kentzera joaten garenean betaurrekoak behar ditugu begietara txirbil pusketak sartzeko arriskua dagoelako. Ondorioz kaskoak eta betaurrekoak batera janzten ditugu. Bat bestearen gainean janzte hori oso deserosoa da eta kaskoek ez dute beraien lana ondo betetzen, bien tartean zirrikitu bat sortzen baita eta ez du behar bezala insonorizatzen.

Arazo honegatik kaskoak eta betaurrekoak elkartzea bururatu zaigu, erosoago baita eta segurtasun aldetik beraien lana hobeto beteko luketeelako.

Hemen irudikatu dugu gure prototipoa:



1.



2.



3.



1.argazkia:

kasko arruntak eta betaurreko arruntak elkartu ditugu guk egingo dugun pieza baten bidez.

2.argazkia:

ikusi daitekeen bezala, betaurrekoak aurrera eta atzera mugitu daitezke pertsona ezberdinei egokitzeko.

3.argazkia:

ikusi daitekeen bezala, betaurrekoak gora mugitu daitezke, kendu beharrik ez izateko betaurrekoak behar ez ditugunean, buru gainean jarritz.

\*kaskoa eta betaurrekoak erosi egingo ditugu, guk biak akoplatzeko pieza egingo dugu, guztia montatuz.